



**LEGAZPIKO
UDALA**



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ARLOA
ÁREA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES



SEXU-ASKAPENAREN NAZIOARTEKO EGUNA ALDARRIKATZEKO MANIFESTUA

Ekainaren 28an, aurten ere, eskubideak eta bizikidetzak aldarrikatzen ditugu euskal gizartearen aurrean, aniztasunetik abiatuta. 1969ko ekainaren 28an - laz 50. urteurrena ospatzen ari ginen - Stonewallen matxinada gertatu zenetik New Yorken, data hori egun bihurtu da lortutako lorpen guztiak aldarrikatzeko eta ikusarazteko, eta, ezinbestean, oraindik lortzeko dugun guztia nabarmentzeko izan behar du.

Legazpiko Udalak eskerrak eman nahi dizkie sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde bizitza eta ahaleginak eman dituzten pertsona guztiei, gaur egun ere antolatzen eta gizartea sentibilizatu, kontzientziatu eta eraldatzeko lana egiten jarraitzen baitute. Era berean, gure mugetatik kanpo eta hemen isilik jasaten duten pertsona guztiak aitortu eta ahaldundu nahi ditu. Eta hori egin nahi du, bereziki, 2021ean, hain ohikoa ez den egoera bizi behar baitugu.

2005eko ekainean, Diputatuen Kongresuak 2005eko uztailaren 1eko 13/2005 Legea onartu zuen. Lege horrek Kode Zibila aldatu zuen ezkontzeko eskubideari dagokionez, eta eskubide eta berdintasun erreala bihurtu zuen LGTBI aktibismoaren aldarrikapen nagusietako bat. Lege horrek duintasuna aitortu zien LGTBI pertsonari. Era berean, martxoaren 15eko 3/2007 LEGEA ere onartu zen, pertsonen sexuari buruzko erregistroko aipamena zuzentzeari buruzkoa, eta horrek aurrekaririk gabeko nazioarteko aurrerapena ekarri zuen pertsona transexualen eskubideetarako.

Aurrerapen horiek ez dute ezkutatu behar asko direla oraindik aurrera egin behar duguna, eta behin eta berriz gertatzen direla LGTBI pertsonen diskriminazio-egoerak, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak egindako azken txostenak adierazten duenez: Espainian, LGTBI pertsonen %48k saihestu egiten dute bikotekidea sexu beretik hartzea, erasoak jasateko beldur baitira. Garraioa eta eremu publikoak dira mehatxurik, irainik eta abarrik ez izateko orientazio sexuala edo identitate sexuala agertzea gehien saihesten den tokiak. Txostenean oso ehuneko handia aipatzen da, inkestatutako pertsonen %90eraino, iruzkin edo portaera homofoboak jasan edo ikusi dituztela diotenak. Txosten horrek Europako Batasunari eta haren kide diren estatuei eskatzen die "neurri zehatz legegile eta ez-legegileak" har ditzatela "kolektiboak jasaten duen jazarpenari eta beldurrari" aurre egiteko.

2021 honetan, halaber, beharrezkoa da gunea zabaltzea eta LGTBI pertsonen Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan duten egoera adieraztea, eta jarrera erabakigarriagoa eskatzea beren eskubideen aurrerapenean eta benetako berdintasunean. EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenarekin, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziarekin edo Europako Parlamentuaren ebazpenarekin bat etorriz, hau da, LGTBI delakoentzako askatasun-eremu deklaratzeari dagokionez, argi eta garbi ezartzen da LGTBI pertsonen eskubideak giza eskubideak direla eta uste dugu 2021 Harrotasun honetan garrantzitsua dela EBn desberdintasunaren aurka borrokatzeko ahalegina indartzea, erantzukizun partekatua aldarrikatuz eta estatu kideen eta Europako erakundeen jarrera aktiboa eskatuz.



**LEGAZPIKO
UDALA**

Berdintasuna

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ARLOA
ÁREA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Beraz, premiazkoa da Tratu Berdintasunerako eta Bereizkeriarik Ezerako Lege Integrala onesteko prozesuan aurrera egitea, gaur egun Legebiltzarrean izapidetzen ari baita, eta LGTBI eta Trans Lege baten bidez bultzatzea. Gainera, Memoria Demokratikoaren Lege proiektuak LGTBI pertsonen jazarpena onartzen du diktadura frankistan, eta jazarpena eta kartzelaratzea jasan zutenak aintzat hartzeko eta konpontzeko ekintza baten beharra.

Legazpiko Udalan argi daukagu erne ibili behar dela sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako sektore eta alderdi politiko jakin batzuen diskurtso eta planteamenduen gorakadaren aurrean, eta horrek ondorio zuzenak ditu: alde batetik, trans kolektiboaren eskubideak onartzearen aurkako oposizio zuzena; eta, bestetik, erasoen gorakada, duela egun gutxi gure herri batean ikusi ahal izan dugun bezala. Horregatik, oraindik ere beharrezkoa da LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borroka ikusarazten jarraitzea.

Azken finean, beharrezkoa da LGTBI pertsonen bizitzak eta eskubideak babesten dituzten lege-esparruak egotea. Halaber, oso garrantzitsua da LGTBI kolektiboaren egungo errealitatea ezagutzea, hiriko zurrumurru eta legendak harago, egiaztatutako eta kuantifikatutako datuekin.

Ikusgarritasun lesbikoa, trans, bi, trans despatologizazioaren aurkako egunak, LGTBI fobiaren aurkakoak... bat egiten dute, gaur, izateko eta desiratzeko harrotasunaren aldarrikapenean, bakoitzak bere erara, den-denek. Horregatik guztiagatik, Berdindun, egun hau sexu-askapenaren alde lortzen ari garen aurrerapen guztiak ospatzeko aprobetxatzera animatzen dugu euskal gizartea, ahaztu gabe gizarte osoaren lana dela erne ibiltzea, horren alde borrokatzen jarraitzea eta pertsona guztiak askatasunean bizi eta adierazi ahal izatea bermatzea.

Horregatik guztiagatik, Legazpiko Udaletik animatzen ditugu legazpiarrei sensibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egin dezaten, foro publikoek, hedabideek eta sare sozialek agerian utz dezaten gaur aniztasunaren aldeko borroka-eguna dela.